


Jolas egin berdintasunean!

Hona hemen berdintasunean jolasteko ideia batzuk:

1. Jolasa askea da. Gustuak pertsonak bezain ezberdinak dira.
2. Ez dago bereziki "mutilentzako" edo "neskentzako" den jostailurik. Jostailuak norberak aukeratzen ditu. Panpin eta sukaldetxoak, patinak eta baloiak..., denak dira ezinbestekoak neskatoentzat eta mutilentzat.
3. Ez dago bereziki "mutilentzako" edo "neskentzako" den kolorerik. Koloreak norberak aukeratzen ditu, ez diezagutela alde aurretik kolorerik ezarri.
4. Gomendagarria da jolas eta jostailu askotarikoak erabiltzeko aukera izatea, lasai jolasteko aukera ematen dutenak eta jarduera fisikoa eskatzen dutenak.
5. Bilatu parte hartzean berdintasuna bultzatzen duten jolasak.
6. Baztertu jostailu, jolas eta bideo-joko bortitzak, ez baitituzte arazoak modu positiboan lantzen.
7. Iragarki batzuetan irudi oker bat agertzen da. Iragarki batzuetan mutikoek espazio komun guztia betetzen dute jolasean eta neskatoak espazio txiki batera mugatuak daude. Iragarki batzuetan mutilek nola jolasten duten begira agertzen dira neskatoak, edo alderantziz.
8. Gomendagarriak dira neskatilak eta mutikoak aipatzen diren eta presente dauden liburuak, jolasak, bideo-jokoak eta jostailuak.
9. ...



1. Zer adierazten du “Jolas egin berdintasunean!” izenburuak?

- A. Denok modu berean jolastu behar dugula.
- B. Denok jolas berdinetan jolastu behar dugula.
- C. Neskek zein mutilek dutela berdina jolasteko aukera.
- D. Gaztetxo guztiek denbora berdina eman behar dutela jolasten.

2. Zergatik esaten da 3. puntuan “Koloreak norberak aukeratzen ditu, ez diezagutela aldeztu aurretik kolorerik ezarri”?

- A. Kolore batzuk itsusiak direlako.
- B. Denoi kolore berdina gustatzen zaizkigulako.
- C. Normalean sexu bakoitza kolore jakin batekin lotu ohi dugulako.
- D. Sexu bakoitzak bere gustuko koloreak dituelako.

3. Nahiz eta jolasa askea izan...

- A. Jostailuak eta koloreak gustuaren arabera aukeratu behar ditugu.
- B. Jostailu batzuk bereziki mutilenak dira eta beste batzuk neskenak.
- C. Kolore batzuk bereziki mutilenak dira eta beste batzuk neskenak.
- D. Jostailuak eta koloreak generoaren arabera aukeratu behar ditugu.

4. Zein jostailu eta jolas gomendatzen ditu testuak?

- A. Batez ere lasai jolasteko aukera ematen dutenak.
- B. Batez ere jarduera fisikoa eskatzen dutenak.
- C. Mutilentzako jolas batzuk eta neskentzako beste batzuk.
- D. Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten dutenak.

5. Nolako jostailuei edo jolasei egin beharko genieke uko?

.....

.....

.....